

IÑAKI GARZES, JOXERRA LOPEZ DE ABETXUKO ETA IÑAKI ARAKAMA, PRESO POLITIKO OHIAK

«Premiazkoa da salbuespen politikak behingoz bertan behera uztea»

📁 JENDARTEA / Xabier IZAGA

Garzes, Lopez de Abetxuko eta Arakamak mezu argi bat utzi nahi dute: nabarmen aldatu da, hobera, euskal preso politikoen egoera; hala ere, oraindik indarrean dauden salbuespen politikak oztopo dira preso politikoak etxera itzultzeko.

Azken urteotan euskal preso politikoen egoera nabarmen aldatu bada ere, «Estatu frantseseko zigorra ez ezik Estatu espainolekoa ere beteta daukaten batzuk Gabonetan ez daude etxean». Hala gogorarazi du Iñaki Garzes Beitia otxandiarak, aldaketa

horiek bere 26 urteko kartzelaldiaren azken txanpan eza-gutu dituenak. Maiatzean aske geratu zen, eta Gasteizera hurbildu da euskal preso en egoeraz hitz egiteko. Joxerra Lopez de Abetxuko Likiniano gasteiztarra batu da solasaldira. Espainiar eta frantses estatuetan 29 urteko zigorra bete ostean, duela sei urte irten zen espetxetik. Iñaki Arakama

Mendia asparrendarrak ez du haiekin batera egoterik izan, baina bai GAUR8rekin. 24 urte egin zituen kartzelan, eta duela lau irten zen kalera.

Garzesen ustez, presoak Euskal Herrira ekarri izana aurrerapauso handia izan da, «zailantza barik. Orain jorratzen ari den bidea ahalik eta lasterrren denak kalean egoteko biderik egokiena da». Prozesu

Joxerra Lopez de
Abetxuko eta Iñaki
Garzes.
Raul BOGAJO | FOKU

hori barrutik nola ikusten den galdetuta, ez du zalantzarik egiten: «Oraindik 2020an, pandemia garaian, Euskal Herrira etortzea nahiko urrun ikusten zen, eta dagoeneko hori amaitu da, Estatu frantseseko bakan batzuentzat izan ezik. Pentsa, orduan asko eta asko lehenengo graduan, isolamenduan... eta gaur egun espetxeko bizitza normala egiten dute, gutxienez erosoago. Eta, gero, irteteko perspektiba badago. Lehen ezin zenuen ezer espero».

Zenbait motatako baimen administratiboak, 100.2 artikulua, hirugarren gradua, baldintzapeko askatasuna eta beste aringarri batzuk aipatu ditu; hala ere, oztopoak ere badaudela dio. «Uste izatekoa da prozesu hori onerako pausoak direla, baina batzuetan teoriarik presoarentzako aurrerapausoa dena benetan atzerapausoa izan liteke haren bizi baldintzetan. Ni kontrol telematiko eskumuturrarekin nengoen, orduetegi bat neukan etxean egoteko, baina hortik kanpo edonon mugi ninteen, eta aske geratu baino lehen, baldintzapeko askatasunean, mugimenduak mugatu zizkidaten, ezin nintzen Bizkaitik atera. Alaba Donostian ikasten neukan, ezin nintzen Otxandiotik Gasteizera joan, Aramaion lan bat atera zitzaidan eta ezin nintzen joan, edonora joateko baime-na eskatu behar nuen...».

ESTATU FRANTSESEAN BETETAKOA

Aurten nabarmendu beharra dago beste estatuetan betetako zigorrak aintzat hartuko dituztela kartzelaldia ez luzatzeko, Europako arauak aspaldi dioen bezala. Joxerra Lopez de Abetxukok 29 kartzela urte bete zituen, horietako lau Estatu



frantsesean beteta zeuzkan arren. «Lau urte, bai –dio gas-teiztarrak–, amarru bat da ha-sieratik. Guk espetxe arautegia beste guztiei bezala aplikatu diezaguten urratsak egin ditu-gu, baina ez digute berdin aplikatzen. Beti egon gara Da-moklesen ezpata gainean ge-nuela, eta esan izan dutena ge-ro ez dute bete. Borroka armatua amaitutakoan dena posible izango zela zioten, pre-soak eta abar. Horregatik da garrantzitsua egin diren pau-soak alde bakarrekoak izatea. Eta kartzeletan asko kostata egin zen pauso horien inguru-ko eztabaida, denek parte har-tzeko oztopoei aurre eginez, eta jendarteak eskatzen zuena kontuan izanda. Estatu fran-tseseko urteak ez kontatzea, edo jendea deportatuta eduki-tzea, estrategia baten arabera-koa da; ingeniariak juridikoa-ren kontua eta beste hainbat amarru ez dira berriak».

Estatu frantsesak Lopez de Abetxuko epaitu eta uko egin zion espainiarrera estradita-tzeari, «baina bi estatuek beste figura bat asmatu zuten, ‘era-bateko premia’ izenekoa, eta besterik gabe mugan jarri nin-duten», dio.

Zigor gehigarria ezarri izan diete hainbat deportaturari ere. Iñaki Arakamak Dominikar Errepublikan eman zituen ur-teez mintzatu da. «Aljerian, Espainiako Gobernuarekiko elkarriketak porrot egin on-doren, Dominikar Errepubli-kara eramane gintuzten. Argi utzi behar da Espainiak depor-tatu gintuela. Aljeriak, bere lu-rraldean geundenez, atxilotu egin gintuen eta Auzitegi Na-zionalaren eskaeraren berri eman zigun. Behin espainiar agintariei entregatuta, ez gin-tuzten Madrilera eramane, Au-zitegi Nazionalak agindutako



Iñaki Arakama.
Manu ARAKAMA

moduan, baizik eta Dominikar Errepublikara. Ikuspuntu poli-tikotik ulergarria da, baina na-zioarteko zuzenbidearen ikus-puntutik inoiz ikusi gabekoa izan zen. Botere banaketa...?».

1989ko apiriletik 1997ko abuztura arte egon ziren han, polizia zaintza zorrotzaren pean eta denbora luzean seni-deen bisitarik ere jaso gabe, engainupean aireportura era-man zituzten egunera arte.

Botere banaketa aipatuta, *lawfare* delakoa ekarri du hiz-pidera Garzesek. «Batzuek orain idoro dutela ematen du, guk duela 50 urtetik gora eza-gutu dugu. Zer frogatzen behar zi-tuzten epaileek gu zigortzeko? Niri Kordoban urtebeteko zi-gorra ezarri zidaten ‘mehatxu terroristengatik’, zigor osoa amaitu nuenean bete behar

xerrari egin zioten moduan. Eta eraiki duten egitura legal hori guztia desmuntatzeko ez daukate hainbesteko presa. Berehala egiten zituzten erre-forma gero eta murriztaile eta zigortzaileagoak, Estatu-ko Al-dizkari Ofizialean argitaratu eta segituan aplikatzen zituz-ten, gauetik goizera, baina errepresioa bertan behera uz-teko erritmoak askoz motela-goak dira». Diotenez, ikusteko dago oraindik nola aplikatuko duten beste estatu-ko kartzela urteen inguruko azken erreforma. «Denbora pasatzen da, eta barrukoa ez da kanpoko denbora».

Hori guztia «terrorismoaren aurkako borrokarekin» justifi-katzen zuten lehen. Orain, or-dea, kontakizuna dute aitzakia. Lopez de Abetxukok dioenez, pedagogia falta dago, «baina ezin genuen pedago-giarik egin, alderdi politiko ba-tekoa izateagatik ere kartzela-ra sartzen bazintuzten, nola esan behar zenuen pentsatzen zenuena? Eta orain kontakizu-na eurek egiten dute».

Halatsu ikusten du Araka-mak ere: «Guk gertakari guz-tiak kontatu nahi ditugunean, kriminalizatzen gaituztela ikusten dugu maiz, apologia-gatik ez bada, beren errelatoa-rekin talka egiteagatik. Or-duan, ahal den bezala egin behar da, puzzle baten piezak bezala, osatzen joateko».

Gaur egungo egoera hobe-a da, eta hori aurrerapausoa da. Bat datoz hirurak. «Hala ere, hor dago oraindik salbuespen legedia. Ez dute bertan behera utzi, ez dute nahi. Jende pila bat dago barruan hogeitaka urte beteta, badaude 40 urte betearazi nahi dizkieten pre-soak. Oraindik badaude pre-soak, eta argi utzi beharra da-go hau ez dela amaitu».

izan nuena. Egun osoan zel-dan itxita egonda, jartzen ziz-kiguten zigorrek gudan eragi-nik ez zuten, ‘mehatxu terroristak zirela-eta’ salake-tak bidaltzen zituzten Auzitegi Nazionalera, eta epaileek nor-malean artxibatzen bazituz-ten ere, nondik heldu ere ez zutelako, batek niri, frogarik gabe baina ‘*por convicción mo-ral*’, urtebete ezarri zidan».

ERRITMOAK

Garzesek dio presoak beti izan direla turko-buruak, «ekintza armaturen bat zela-eta edo egoera politikoaren arabera, beti jasotzen genuen egurra; Zigor Kodearen aldaketak, Pa-rot doktrina zelakoa, ez zela le-gezkoa jakinda ere, denbora irabazteko. Zigorra ebatzen zen bitartean, gu barruan, Jo-